

GAO 2009ko martxoaren 2koa 40 Zk

BEASAINGO UDALA

Iragarkia

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailerako 70.2 artikuluan, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretu bidez onetsitako Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduko 196.2 artikuluan eta 1955eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onetsitako Korporazio Lokalen Zerbitzu Erregelamenduko 7.2 artikuluan araberak, 2008ko urriaren 30eko Udalbatzan «Udal Planeamenduko Aholkularitza Batzordea arautzen duen erregelamenduari» hasierako onespina eman zitzaion eta iragarkia 2008ko azaroaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta alegaziorik aurkeztu ez direnez, behin-betiko onetsi da, eta horren ondorioz, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

BEASAINGO UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN ERREGELAMENDU

I. KAPITULUA

UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK

1. artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordea sortzea

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluararekin bat etorriz, Araudi honen bidez Beasaingo Udal Planeamenduko Aholku Batzordea sortu da.
2. Beasaingo Udal Planeamenduko Aholku Batzordea, hain zuzen, aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat da, hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez kon-tzertazio sozialerako funtzioak beteko dituenak.

2. artikulua. Izaera juridikoa

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura erkidearen 30/1992 Legeak araututako kide anitzeko organo gisa sortu da.

3. artikulua. Funtzioak eta helburuak

1. Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak nahitaez eman beharko du plangintza orokorra formulatzeko, puntualki aldatzeko edo berrikuspina egiteko espedienteei buruzko irizpina.
2. Aholku Batzordearen nahitaezko txostenak kasu hauetan eman

beharko dira:

- Planeamendu orokorra nahiz aldaketa puntualak egin aurreko fasean.
 - Hasierako onespina eman ondorengo jendaurreko epean.
 - Plangintzako Aholku Batzordearen txostena, kontuan hartu izanari edo ez izanari buruzko udal-ziurtagiria eta egindako iradokizunak edo gomendioak kontuan ez hartzeko emandako erantzuna Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorri beharreko espedienteari gaineratu beharko zaizkio. Batzorde horrek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitako txosten loteslea eta aginduzkoa egin dezan.
3. Era berean, Aholku Batzordeak eskumena izango du hirigintza-antolamenduko beste plan eta tresna batzuei buruzko informazioa biltzeko eta horren berri emateko batzordea osatzen duten kideen gutxienez herenak horrela eskatuz gero.
 4. Aintzat hartzen dituen gaiak aztertzeko agirien bidez esku hartuko du Batzordeak. Agirietan proposamenak edo aukerak aurkeztu ahal izango ditu, baina horiek ez dira izango lotesleak herri-administrazioentzat.
 5. Batzordeak Udalean aurkeztutako proposamen edo aukerei dagokienean, planeamenduko dokumentuaren behin betiko onarpenaren ebazpenean horiei buruzko argibiderik ematen ez denean, erantzun arrazoitua eman beharko da.
 6. Jendaurrean ikusgai jarri baino lehen, artikuluko 1. atalean ageri den edozein espedienteren hasiera ofizioz jakinaraziko die Udalak Aholku Batzordeko kideei.

II. KAPITULUA

UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

4. artikulua. Osaera

Planeamenduko Aholku Batzordeak kide hauek izango ditu:

- a. Lehendakaria: Alkatea izango da Aholku Batzordeko lehendakaria; alabaina, edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritza.
- b. Lehendakariordea: Hirigintzako zinegotzi titularra izango da. Eta lehendakariak bezala, edozein zinegotziren esku utz dezake bere kargua. Aipatutako ordezkapena alde batera utzita, lehendakariordeak lehendakaria ordezkatzeko du, azken horren kargua hutsik dagoenean, ez dagoenean edo gaixo dagoenean.
- c. Zinegotziak diren kideak: Zinegotziak, batzorde informatiboak osatzeko ezarritako proportzioan, lehendakaria eta lehendakariordearen talde politikoaren ordezkariak kenduta.
- d. Zinegotziak ez diren kideak, gehienez ere bost, banaketa honen

arabera:

- Bareak dendarien elkarteko kide bat.
 - Tokiko Agenda 21eko kide bat.
 - Eskolako Agenda 21eko kide bat.
 - Jarduera udalerrian garatzen duten elkarteetako bi kide. Elkarteak, Batzordearen Lehendakariak aukeratuko ditu, udalean ordezkariak izango dituen talde politikoek proposatuta.
- e. Idazkaria: Aholku Batzordeko idazkari izango da udalbatzako idazkaria edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona. Idazkariak, Lehendakariaren ikuskaritzapean, laguntza eta aholkuak emango dizkio Aholku Batzordeari.
- f. Lehendakariak, Lehendakariordeak edo edozein kidek hala proposatuz gero, Batzordeko bileretan parte hartu ahal izango dute, batzordeko kideak izan ez arren, hitzarekin baina botorik gabe:
- Hirigintza-planak idazteaz arduratzen diren teknikariek.
 - Hirigintzako eta ingurumeneko udal teknikariek.
 - Hirigintza eta Ingurumenaren arloan edo, besteak beste, kultura, kirol, hezkuntza eta gizarte gaietan adituak diren pertsona ospetsuek.

5. artikulua. Batzordeko kideen izendapena eta kargu-uztea

1. Aholku Batzordeko kideak Alkateak izendatuko ditu. Izendapenak horrela proposatuko dira:

- a. Alderdi politikoek ordezkariak, alderdiek beraiek proposatuta.
- b. Gainerako kideak, ordezkatzeko dituzten erakundeek ordezkariak proposatuta.

Batzordean ordezkariak izendatzeko, elkarteek inskribatuta egon beharko dute dagokien Elkartearen Erregistro Orokorrean.

Batzordean parte hartu nahi duten entitateen kopuruak gehieneko ordezkariak izango diren kopurua gaintzen badu, eta elkarte horien artean adostasunik ez badago, Batzordeko lehendakariak ezarriko du parte hartzeko modua -zozketa bidez, txandakatze bidez, batera bertaratzearen bidez, edo egoki iritzitako beste formula baten bidez.

2. Kideek aldeztu aurretik onartu beharko dute haien izendapena.

3. Aholku Batzordeko kideen agintaldiaren iraupena bat etorriko da izendatuak izan zirenekin. Dena den, ondoko arrazoiengatik kargua utzi ahal izango dute:

- a. Kide izateari uko egiteagatik.
- b. Epai irmo baten bidez kargu publiko bat betetzeko ezintasuna edo

ezgaitasuna aitortzen denean.

- c. Haien karguagatik Batzordeko kide diren pertsonak kargua uzten dutenean, Batzordea ere utzi beharko dute.
- d. Proposatutako duen erakundeak kargugabetu duelako edo hautatu zuen elkarteak utzi duelako.
- e. Araudi honetan adierazitako funtzioak behin eta berriz ez bete-tzeagatik.

4. Batzordeko plaza hutsak izendapenerako ezarri den modu berean beteko dira.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU ERREGIMENA

6. artikulua. Ohiko eta ezohiko bilkurak

1. Planeamenduko Aholku Batzordeak ohiko bilkurak egingo ditu Planeamendu espedienteei buruzko irizpena emateko, Araudiaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ohiko bilkuran, aipatutako txostena egin beharko du.
2. Dena den, ohiko bilkurez gain, Batzordeak ezohiko bilkurak egin ahal izango ditu presazko edo komenentziazko arrazoiak direla medio. Horrelakoetan, bilkurarako deialdia Lehendakariak egingo du, Lehendakariak berak proposatuta edo Batzordea osatzen duten kideen gutxienez herenak eskatuta.

7. artikulua. Quoruma

Bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko beharrezkoa izango da Lehendakariaren eta Idazkariaren presentzia, edo bestela, horiek eskuordetutako pertsonena, eta Batzordeko kideen gehiengo absolutuarena. Gainera, zinegotziak ez diren kideen herena beharko da.

8. artikulua. Bilkurak deitzea

1. Bilkuretarako deialdia, bilkurako eguna baino gutxienez bost astegun lehenago egingo da. Nolanahi ere, deialdiarekin batera joango da bilkurako gai-zerrenda.
2. Gai-zerrendan ageri diren gaiei buruzko informazioa idazkariaren esku egongo dira deialdia egin baino hiru egun lehenago.
3. Batzordeko Lehendakariak, Lehendakariak berak proposatuta edo edozein Batzordekidek eskatuta, premiazkotzat joz gero, gai-zerrendan ez dagoen beste edozein gai sartzea proposatu ahal izango du bilkuraren aurretik.

9. artikulua. Deliberazioak

Batzordeko Lehendakariak batzarrak zuzendu, eztabaidak antolatu eta bilerak ondo egiten direla bermatzeko komenigarriak diren neurriak hartuko ditu.

10. artikulua. Lan-batzordeak

1. Lan-batzordeak osatu ahal izango dira hirigintza-planeamenduko gai zehatzak jorratzeko edo Batzordearen gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean.
2. Lan-batzordeen osaera, izena eta funtzionamendua Batzordeak erabakiko du.
3. Lehendakariak beharrezkotzat eta egokitza jotzen duen laguntza teknikoa eskatuko du udalean bertan edo udaletik kanpo.
4. Lan-batzordeek jorratutako gaien berri emango diote Batzordeari.

11. artikulua. Erabakiak hartzea.

1. Aholku Batzordearen erabakiak bildutako kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Berdinketa egonez gero, Lehendakariak kalitate botoa emango du. Nolanahi ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritzia agerrarazi.
2. Hartzen diren erabakiak akta batean jasoko ditu Idazkariak, eta akta hori aztertu beharreko hirigintza-espeditentari gehituko zaio. Erabaki horiez gain, Udalarentzat lotesleak izango ez diren hirigintza-antolamenduko proposamen edo aukera zehatzak aurkeztu ahal izango dira.

12. artikulua. Funtzionamenduko barne-arauak.

Aholku Batzordeak, Araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik, bere funtzionamenduko barne-arauak ezar ditzake.

13. artikulua. Tokia eta Aktak.

Aholku Batzordearen batzarrak Udalaren bulegoetan egingo dira. Batzar bakoitzean akta egingo du idazkariak; akta hori Batzordeko kideei bidaliko zaie hamabost asteguneko barruan eta hurrengo batzarrean onartuko da egokia izanez gero.

14. artikulua. Baliabideak atxikitzea.

Aholku Batzordea hirigintza gaietan eskuduntza duen arloaren menpe gelditzen da. Beraz, Aholku Batzordeak ondo funtzionatu dezan, hirigintza arloak behar diren baliabideak jarriko ditu bere esku.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitasteguneko epean, seigarren artikuluan adierazitako elkarteek eta pertsonak, nahi izanez gero, Udal Planeamenduko Aholku Batzordean parte hartzea eska dezakete. Alkateak eskaera horiei erantzun eta onartutako pertsonak deituko ditu Batzordea eratzeko egingo den bilerara.
2. Udal Planeamenduko Aholku Batzordea formalki eratuta geratuko da horretarako deituko den bileraren bidez.
3. Batzordea osatu ondoren, bertan parte hartu ahal izango dute Araudi honetan xedatutakoa betetzen duten elkarteek, baldin eta ez bada gaingiditu zinegotziak ez diren gehienezko kideen kopurua.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan espresuki aurreikusi ez denari dagokionez, Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen funtzionamendua eta jarduna Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. kapituluko II. tituluan xedatutakoaren araberakoak izango dira. Gainerako xedapenetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudian (2.568/1986 Errege Dekretua) ezarritakoa bete beharko da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eta arauak ezartzeko eskumena ematen zaio hirigintza arloan eskumena duen Batzordeari.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean egongo da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita».

Azken eguneratzea: 2009/03/10